

Sua da dirdiratzen enbor-ertz erdian,  
poz dauzkagu biotzak pakezko ozkarbian.  
Amonak zizaillutik diardu ipuinketan,  
aur ta nausi gaitula adi ezpañetan.

Zuri-zuri elurra teillatu erlaxean,  
izotz ziztorra dindil xorta etengean...  
Gu gauden orain beintzat maitasun kantari,  
ederra egiñikan supazter onari.

## OTSAILLEZ

*Neguak, ba, ematen digu astia epez ipui ta elezar kontaketan jardun al izateko. Bere zoroaldiak, orraitio, izan oi ditu, orain euri-zaparrada, odei-murru ta elur-malo etengabeak, eta gero eguzki epel gozatsua, gaixo ekarle galanta. Otsailla da ortan aukerako.*

«Mutil koxkor bat,..»,

Zurubi gora Negu badoa,  
otso illean sar gera;  
atzo Eguzki-k txeraz dizkigu  
izpiak igor lurrera,  
eta otsailla izanik ere  
badute lorak ernerera.  
Baiña neguak oraindik duke  
bere sumin esnaera,  
bizkar gaiñetik astinduz zapla  
berozko gili gupera.

Sasoiz euria, sasoiz elurra  
ditugu beti etekin,  
gaurko biguna biar ankerra  
iñolaz etor ez dedin,  
otsaillez bego mendia zuri,  
zerua goibel ta gordin;  
adu txarreko illa dugu au  
euritsu ba da, atsegin  
izango digo lugiñak aski,  
baíta igali, gari mozkin.

Euskeraz bada esakun zarra  
otsailla belztu naizkoa:  
«Egur-tokian sartu ornen zun  
beraren ai tatzakoa:  
ama ordea leixibontzira  
bota ornen zun gaixoa».  
Dena delarik, muzin, aldakor,  
agertzen zaigu osoa,  
ez jan ezta lan dugunarekin  
arduraz ibiltekoa.

Bazter inguru ba dut lanik,  
ez nadin beraz nagitsu:  
soro lanean darabilzkidan  
tramankuluak berritu,  
urak ibilliz egin zotaskak  
ta auzobideak berdindu,  
kortako egal, orma zilloak,  
sapai azpiak zuritu:  
Nere ta nereen bizitoki dan  
etxe aldea txukundu.

Nere andreak du aspalditxo  
oillotegian oitura,  
azpi ta ota garbi izateko  
berak du egiz ardura,

Otsail aldiko txita mordoa  
ongi bai dator errura,  
bi oillo loka sartu dizkitzu  
mimen-otzara barrura.

Aspaldi dauzkat igali-zerak,  
—sagar, madari, kakiak-  
esku goxo ta iraupen muker  
azal ta sustrai garbiak,  
adar ta enbor itzaifien aurka  
boordel.-saldaz igurtziak.  
Olaxe ditut gesal, zomorro  
ta bestelako piztiak  
adar, besanga, enborretatik  
udarako erauziak.

Sagasti landak txakundu ditut,  
ta kímu berriak sartu;  
madari-ondo igaz sartuak  
aurten dizkitzut txertatu,  
adar zurgarri ta gailla alperrak  
ditut errukige moztu.  
Loretegiko bazterrak ere  
atzo nítuen apaindu.  
Labur: aurtengo iñaus-lanak  
ilberan ditut amaitu.

Azitarako arbi-udarbiak  
lore-tokira aldatuz,  
kristal azpian tomate, uraza,  
piper ta kuiak eraturuz,  
leketako illar ta babarrunak  
orma ondoan lekutuz,  
porru motz lodi, ostro zuridun  
azelkia lurreratuz,  
osotu ditut neguko lanak  
gogo bizi ta kementsuz.

emakumaren esku maratzak  
obe du ortan aztura.

Etxe barruan, korta-leioak  
aizea bear berritu,  
nere abereen qgeak ere  
gogoz bear ditut zaitu,  
loi ta zikiñak, zoko-egalak  
arreta biziz garbitu;  
atseden guri dezaten beti  
eta esnekoi agertu,  
azpigarria, dena delako,  
sarde-puntaz barreiatu.

Obari asko dauzkagu lanak  
batez ere uda-goienez  
egiñak baldin ba dira  
negu latzaren bildurrez.  
Sasoiz nitun ganbararatu  
labore saskiak eurrez,  
intxaur ta sagar, gaztaiña ta urre,  
maats, kaki eta tomatez,  
piper, lursagar eta bestelakoz  
ainbat otzara gutxik lez.

Baserri baten ez dator gaizki  
urte guztiz txerrikia,  
guk emen beintzat orixe dugu  
naitaezko janaria.  
Berandu xamar izanik ere  
atzo u genuen txerria,  
bizkar mardula, anka txikiak,  
saietsez ongi betia.  
Urdai ta zezin aurtengo urtez  
guk bai lapiko guria!